

ZAINZURI ZURIA ERREA

written by Errezetak



Nafarroako bai erdialde eskualdean bai erriberako altxorra dugu. Gehienetan egosia prestatzen den jakia dugu, ala ere, beste modu batzuk daude.

2 Perts.

Osagaiak:

- Nahi adina zainzuri zuriak
- Olioa
- Gatz maluta
- Ura

Prestaketa:

1. [Zainzuriari](#) bukaeratik hasita 1/3 moztu, ondoren azal-kentzeko gailua erabiliz hiru alditan pasa kanpoko azala kentzeko asmoz. Ura erabiliz garbitu, gorde.



2. **Labea** berotu 190° . Zainzuriak labeko erretiluan sakabanatu eta **olio** pittin bat gainetik jarri. 25 Minutuz labekatu. Denbora pasata, plater edo erretilu batera pasa eta gatz malutekin ondu, zerbitzatu.

